

PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2012.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Privatuko Erakunde Publikoaren fiskalizazio txostena mamitu du, 2012ko ekitaldiari buruzkoa. Txostena Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu eta kontabilitate, langileria eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere. Horrezaz gain, Osatek, SA fiskalizatu da.

Legezkontasunaren atalean Epaitegiak uste du Osakidetzak eta Osatekek zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, txostenean bertan zehaztu diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, Osakidetzaren kasuan eta kontratazioaren atalari dagokionez, HKEEK adierazi du urratu egin duela publikotasun eta lehia printzipioa kontratu txiki modura izapidetu dituelako botika erosketak, 53,3 milioi euroren zenbatekoan, eta bestelako hornigaiak, 75,9 milioi eurorenak.

Langileriarri dagokionez, HKEEK 2012an Erakunde Zentralaren zenbait izapidetan jasotakoari jarraiki, hainbat produktibitate-osagarriren ordainketa azpimarratu du; horiek, ordea, ez zeuden aurreikusiak Osakidetzako langileen lan baldintzak arautzen dituen Erabakian.

Osakidetza eta Osateken Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du bien gainean; salbuespen bakarra Osakidetzari dagokio, izan ere, ez ditu egoeraren balantzean erregistratu zenbait langilearen erretiro osagarrien kontzeptuko obligazioak, ez 60 eta 64 urte bitartean erretiroa hartzen duten langileen borondatezko erretiroagatiko saria ere; horrek guztiak, aktuario azterketa baten arabera, 2012ko abenduaren 31n 98,4 milioi euroren zenbatekoa egin du.

Berebat, HKEEK hainbat irizpen plazaratu ditu barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei dagokienez.